Erasmus+

Universidad del País Vasco / Euskal Herriko Unibertsitatea

**Erabakia, 2021eko abenduak 21ekoa, Euskara, Kultura eta Nazioartekotzearen arloko errektoreordearena, Tokyo Insititute of Technology-n (Japonia) Erasmus+ mugikortasun baten esleipena, 2022ko "Summer Exchange Research Program-SERP"-en esparruan doktorego egonaldi bat egiteko.**

**RESOLUCION de 21 de diciembre de 2021 de la Vicerrectora de Euskera, Cultura e Internacionalización, por la que se adjudica una movilidad Erasmus+ para realizar una estancia de doctorado en Tokyo Institute of Technology (Japón), en el marco del "Summer Exchange Research Program-SERP" del 2022.**

Joan den 2021ko abenduaren 17an, Tokyo Institute of Technology-ren (Japonia) 2022ko "Summer Exchange Research Program-SERP"-en esparruan doktoregoko Erasmus+ egonaldi bat egin behar duen pertsona aukeratzeko balorazio batzordea bildu zen (2021eko azaroaren 12an argitaraturiko, Euskara, Kultura eta Nazioartekotzearen arloko errektoreordearen erabakiaren 6. oinarrian aurreikusten den batzordea hain zuzen), jasotako eskaera bakarra aintzat hartzeko.

El 17 de diciembre de 2021 se reunió la Comisión de Valoración prevista en la Base Sexta de la Resolución, de 12 de noviembre de 2021, de la Vicerrectora de Euskera, Cultura e Internacionalización, por la que se publicó la convocatoria para una plaza de movilidad Erasmus+ en doctorado para Tokyo Institute of Technology (Japón), con el fin de participar en su "Summer Exchange Research program - SERP" del 2022, con el fin de valorar la única solicitud recibida.

Deialdiko 5. oinarriaren arabera, hautagai bakoitzaren balorazioa honela egin behar da:

Según la Base Quinta de la convocatoria, la valoración de cada candidato a candidata ha de realizarse de la siguiente manera:

> *"5- ESLEIPENERAKO IRIZPIDEAK.*
>
> *5.1.- Nazioarteko mugikortasun eskaera egitekorakoan bigarren oinarrian aipatzen diren doktorego programa bietako batean izena emanda dauden doktoregai guztiak hartuko dira plaza hauetarako hautagaitzat, baldin eta TOKYO TECHen egin nahi duten ikerketa gorago adierazitako bi lerroetako batean planteatzen badute eta egiaztatuta badute gutxienez B2 maila ingelesez.*
>
> *5.2.- Hautaketarako oinarria merezimendu akademikoa izango da. Horretarako, kontuan hartuko da*

> "**5- CRITERIOS DE ADJUDICACIÓN.**
>
> *5.1.- Serán considerados candidatos/as a estas plazas a todos aquellos/as doctorandos/as que en el momento de formalizar su solicitud de movilidad internacional estén inscritos en alguno de los dos Programas de Doctorado de la UPV/EHU indicados en la Base nº 2, planteen la investigación a llevar a cabo en TOKYO TECH en alguna de las dos líneas arriba indicadas y que acrediten conocimiento de inglés con nivel mínimo B2.*
>
> *5.2.- El criterio de selección se basará en el mérito académico teniendo*



*Email pc.international@ehu.eus Telefono zenbakia / Nº teléfono:+ 34 943 015127*

*mugikortasun deialdiko hautaketa egiten denean ikasle bakoitzak aurkeztu duen batez besteko nota, doktoregora sartzeko aukera ematen duten gradu eta masterretakoa. Kontuan hartuko dira, baita ere, honako hauek: eskaerarekin batera aurkeztu beharreko memoria, ingelesaren jakite maila egiaztatua, eta egoki jotzen diren bestelako merezimenduak. Berdinketarik gertatuz gero, lehentasuna izango dute Eusko Jaurlaritzaren eta/edo kasuan kasuko ministerioaren beka orokorra dutenek.*

*5.3.- Puntu gehien lortuko dituen doktoregaiari esleituko zaio Erasmus+ ICM finantziazioa duen plaza, zortzigarren oinarrian adierazten den moduan. Laguntza hori bateragarria izango da doktoregaiak lor ditzakeen beste batzuekin.*

*Bigarren lekuan geratuko den doktoregaiak ez du jasoko finantziaziorik deialdi honen barruan, eta beste iturri batzuetatik lortu ahal izango ditu bidaia egiteko baliabide ekonomikoak.*

*para ello en cuenta la nota media en las titulaciones de grado y máster que dan acceso al Doctorado, que cada candidato/a hace valer en el momento en el que se haga la selección de la convocatoria de movilidad. Se tendrán también en cuenta los siguientes: la memoria explicativa incluida en la solicitud, el nivel de inglés acreditado, y otros méritos adicionales que se estimen oportunos. En caso de empate, tendrán prioridad los/as estudiantes que sean becarios de la beca General del Gobierno Vasco y/o Ministerio correspondiente.*

*5.3.- Al doctorando/a que obtenga mayor puntuación se le asignará la plaza con financiación Erasmus+ ICM de la convocatoria 2020 en los términos indicados en la Base nº 8. Esta ayuda será compatible con otras que pueda obtener el doctorando/a.*

*El doctorando/a que quede en segundo lugar no obtendrá financiación en el marco de esta convocatoria, pudiendo lograr medios económicos para viajar a destino de otras fuentes."*

Beka kontzeptu gisa lortuko den zenbatekoa honako hau izango da: 700 euro hilean, 5 hilabetez gehienez. Gainera, 1500 euro lortuko dira bidai gastuetarako.

Las becas Erasmus+ consisten en una mensualidad de 700 euros como máximo durante 5 meses de estancia efectiva para el fin estipulado, y gastos de viaje de 1500 euros.

Esandako guztiagatik, UPV/EHUko errektorearen 2021eko urtarrilaren 28ko Erabakiaren bidez eskuordetu zaizkidan eskumenak erabiliz (2021eko otsailaren 12ko EHAA, 31. zk.), SEPIEk eta UPV/EHUk Erasmus+ programako herrialdeen eta herrialde kideen arteko ERASMUS+ 2020 proiektua kudeatzeko sinatutako hitzarmenaren barruan, Balorazio

Por todo lo expuesto, en ejercicio de las competencias delegadas por Resolución de 28 de enero de 2021 de la rectora de la UPV/EHU (BOPV nº 31, de 12 de febrero de 2021), en el marco de lo establecido en el convenio suscrito por la SEPIE y la UPV/EHU para la gestión del proyecto Erasmus+ 2020 para la movilidad entre países del programa Erasmus+ y países



*Email pc.international@ehu.eus Telefono zenbakia / Nº teléfono:+ 34 943 015127*

Batzordeak bidalitako esleipen proposamena aintzat hartuz, eta horretarako aurrekontu kredituriк badagoenez, honako hau

asociados, teniendo en cuenta la propuesta enviada por la Comisión de Valoración de la Convocatoria, y contando con la disponibilidad presupuestaria requerida,

**ERABAKI DUT:**

**RESUELVO:**

**Lehena.-** Japoniako Tokyo Institute of Technology-ren 2022ko "Summer Exchange Programme"-n parte hartzeko Doktorego Erasmus+ egonaldi bat esleitzea, I ERANSKINEAN dagoen ikasleari esleitzea.

**Primero.-** Adjudicar una estancia Erasmus+ en doctorado para participar en el "Summer Exchange Programme" del 2022 de Tokyo Institute of Technology, Japón, al/ a la alumno/a indicado en el ANEXO I.

Ez da beste hautagairik egon.

No ha habido más candidatos.

Erasmus+ mugikortasuna gutxienez 3 hilabetekoa (90 egun) eta gehienez 5 hilabetekoa (150 egun) izan beharko da.

La movilidad Erasmus+ deberá tener una duración mínima de 3 meses (90 días) y máxima de 5 meses (150 días).

Esleipen hau honako hauetara baldintzaturik dago: a) UPV/EHUk izendapena izapidetu behar du; b) Tokyo Institute of Technology-k izendapena ofizialki onartu behar du; eta c) ikasleak Japoniara joateko Erasmus+ mugikortasuna abian jartzeko beharrezkoak diren izapide guztiak egin behar ditu (bai UPV/EHUren aurrean, bai Tokyo Institute of Technology-ren aurrean).

Esta adjudicación queda supeditada a las siguientes cuestiones: a) la tramitación de la nominación por parte de la UPV/EHU, b) la aceptación oficial de la nominación por parte de Tokyo Institute of Technology, y c) la realización por parte del/de la alumno/a de todos los trámites necesarios para poner en marcha la efectiva movilidad Erasmus+ a Japón (tanto ante la UPV/EHU como ante Tokyo Institute of Technology).

UPV/EHUk ez du inolako obligaziorik edo konpromisorik hartuko Tokyo Institute of Technology-k aipaturiko hautagaia onartzen ez badu, edota ikasleak egin beharreko izapideak ez baditu gauzatzen.

La UPV/EHU no asumirá obligación ni compromiso alguno en el que caso de que el candidato/a nominado no sea aceptado/a por Tokyo Institute of Technology o si el/la estudiante no realiza los trámites pertinentes.

**Hirugarrena.- Ikasleen betebeharrak.**

**Segundo.- Obligaciones de los/as estudiantes.**

Onuradunek betebehar hauek izango dituzte:

Los/as beneficiarios/as están obligados/as a:

a) UPV/EHUrekin sinatzea "Erasmus+

a) Firmar un "Convenio de subvención


Email pc.international@ehu.eus Telefono zenbakia / Nº teléfono:+ 34 943 015127

diru laguntzarako hitzarmena", non zehaztuta egongo diren Erasmus+ beken onuradunen eskubideak eta betebeharrak.

b) UPV/EHUk atzerriko egonaldiaren hasieran, erdian eta amaieran bidaliko dizkion galdetegiak bete eta bidaltzea.

c) Unibertsitateari egiaztatzea mugikortasun programan parte hartzeari lotutako eginbeharrak betetzen dituela.

d) Diru laguntza erabiltzea berez dagokion helbururako, hau da, atzerriko unibertsitatean 2022ko ekainean, uztailean, abuztuan edota irailean hasi beharreko egonaldia burutzeko.

e) Behar diren egiaztapenerako prest egotea, diru laguntza jasotzeko baldintzak betetzen dituela ziurtatzeko.

**Laugarrena.- Betebeharretan huts egitea.**

Deialdian eta aplikatu beharreko gainerako arauetan zehaztutako betebehar eta baldintza guzti-guztiak betetzen ez baditu,, espedientea irekiko zaio ikasleari, eta ondorioa izan daiteke (interesdunari entzun eta gero), ikasleari laguntza kentzea, osorik edo zati bat, eta gainera zenbateko bat itzuli behar izatea. Zenbateko hori erabakiko da kasuan aplikatu beharreko irizpideen arabera eta atzerapenen interesak aplikatuta, hori guztia Diru Laguntzen Lege Orokorrari jarraituz.

Erasmus+" con la UPV/EHU, que fijará los derechos y obligaciones de los beneficiarios de las becas Erasmus+.

b) Completar y enviar los cuestionarios que recibirá desde la UPV/EHU sobre su estancia al inicio, mediados y final de la estancia en el extranjero.

c) Acreditar ante la UPV/EHU el cumplimiento de las obligaciones derivadas de su participación en programas de movilidad.

d) Destinar la subvención a la actividad para la que se le concede; es decir, para realizar la estancia en la universidad de destino, teniendo que comenzarla en junio, julio, agosto o septiembre de 2022.

e) Someterse a las actuaciones de comprobación precisas para verificar, en su caso, el cumplimiento y efectividad de las condiciones de concesión de la subvención.

**Cuarto.- Incumplimientos.**

El incumplimiento total o parcial de los requisitos y obligaciones establecidas para ser becario o becaria Erasmus+ , así como las normas que se establecen en la presente resolución de concesión, dará lugar a la apertura de un expediente de incumplimiento, cuya resolución, previa audiencia de la parte interesada, podrá dar lugar a la revocación de la ayuda concedida parcial o totalmente y la obligación de reintegrar la cuantía que se establezca en función de los criterios aplicables y los intereses de demora correspondientes, conforme a lo dispuesto en la Ley General de Subvenciones.



*Email [pc.international@ehu.eus](mailto:pc.international@ehu.eus) Telefono zenbakia / Nº teléfono:+ 34 943 015127*

**Bosgarrena.- Dirua itzultzeko prozedura.**

Betebeharretan huts egiten den kasuetan, hau izango da dirua itzultzeko prozedura:

a) Euskara, Kultura eta Nazioartekotzearen arloko errektoreordeak interesdunari jakinaraziko dio dirua itzultzeko prozedura ireki dela eta horren arrazoiak azalduko dizkio. Instruktore bat izendatuko du eta hamabost eguneko epea zabalduko du ikasleak alegazioak egiteko eta egoki deritzen frogak proposatzeko. Prozedura irekitzearekin batera eten egingo dira ordainketak.

b) Alegazioak jasota edo horiek egiteko epea alegaziorik gabe igarota, aurrera jarraituko da prozedurarekin eta interesdunari onartu zaizkion frogak egingo dira. Horren ostean, erabaki proposamena aurkeztuko da, eta interesdunari jakinaraziko zaio, azken alegazioak egin ditzan. Euskara, Kultura eta Nazioartekotzearen arloko errektoreordeak izango du eskumena erabakia emateko.

Prozedura ebazteko gehieneko epea sei hilekoa izango da.

Erabakiak xedatuko balu ikasleak betebeharretan huts egin duela, laguntza jasotzeko eskubidea galdu egin duela adieraziko du, eta hala dagokionean, Euskal Herriko Unibertsitateari dagokion zenbatekoa itzuli behar diola, bi hilabeteko epean, erabakiaren jakinarazpena hartzen duenetik hasita. Epe hori borondatezko epea izango da.

**Quinto.- Procedimiento de reintegro.**

En los supuestos de incumplimiento previstos en esta resolución, el procedimiento para el reintegro de las ayudas percibidas será el siguiente:

a) La Vicerrectora de Euskera, Cultura e Internacionalización comunicará a la persona interesada la iniciación del procedimiento de reintegro y las causas que lo fundamentan, nombrando un/a instructor/a y concediendo un plazo de 15 días para que formule las alegaciones y proponga las pruebas que estime oportunas. Las universidades de origen de los estudiantes serán informadas. La iniciación del procedimiento suspenderá, en su caso, los pagos que aún queden pendientes.

b) Recibidas las alegaciones o transcurrido el plazo sin que se hubiesen realizado, se seguirá adelante con el procedimiento practicándose las pruebas admitidas en su caso tras lo cual se elevará propuesta de resolución que será comunicada al/a interesado/a para trámite de alegaciones finales. La Vicerrectora de Euskera, Cultura e Internacionalización será competente para emitir la Resolución a que haya lugar.

El plazo máximo para resolver el procedimiento de reintegro será de seis meses.

Si la Resolución estimase la existencia de incumplimiento, declarará la pérdida del derecho a la percepción de la ayuda y, en su caso, la obligación de reintegrar a la UPV/EHU las cantidades que procedan en un plazo máximo de dos meses, desde la notificación de la Resolución.



*Email pc.international@ehu.eus Telefono zenbakia / Nº teléfono:+ 34 943 015127*

c) Borondatezko epearen barruan dirua itzuli ezean, horren berri emango zaio Gerentziari, Gradu Ikasketen eta Berrikuntzaren arloko errektoreordeari eta gaian eskumenak dituzten Euskal Herriko Unibertsitateko organoei, dagokien lege eta arauen arabera neurriak har ditzaten.

c) La falta de reintegro en dicho período será puesta en conocimiento de la Gerencia y aquellos órganos de la UPV/EHU con competencias específicas, a fin de que se proceda según lo dispuesto en la normativa legal aplicable.

**Seigarrena.- Errekurtsoak.**

Erabaki honek administrazio bidea agortzen du. Hala ere, haren aurka aukerako berraztertze errekurtsoa aurkeztu ahal zaio Euskara, Kultura eta Nazioartekotzearen arloko errektoreordeari, hilabeteko epean, erabakia UPV/EHUko webgunean argitaratu eta hurrengo egunetik hasita, hori guztia, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen arabera (123 eta 124 artikuluak); bestela, administrazioarekiko auzi errekurtsoa jar daiteke zuzenean administrazioarekiko auzietako Bilboko epaitegietan bi hilabeteko epean, erabakia UPV/EHUko webgune ofizialean argitaratzen denetik hasita, administrazioarekiko auzien jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legearen arabera (10.1a eta 46.1 artikuluak).

**Sexto.- Recursos.**

La presente Resolución pone fin a la vía administrativa. No obstante, contra la misma cabe interponer recurso potestativo de reposición ante la Vicerrectora de Euskera, Cultura e Internacionalización en el plazo de un mes, contado a partir del día siguiente al de su publicación en la Web de la UPV/EHU, de conformidad con lo dispuesto en los artículos 123 y 124 de la Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas, o directamente recurso contencioso-administrativo ante los juzgados de lo Contencioso-Administrativo de Bilbao en el plazo de dos meses, contados desde el día siguiente al de su publicación en la Web oficial de la UPV/EHU, conforme a lo establecido en los artículos 8.3 y 46.1 de la Ley 29/1998, de 13 de julio, reguladora de la Jurisdicción Contencioso-Administrativa.

Leioa, 2021eko abenduak 21

En Leioa, a 21 de diciembre de 2021

Maria Juncal Gutiérrez Mangado
Euskara, Kultura eta Nazioartekotzearen arloko errektoreordea
Vicerrectora de Euskera, Cultura e Internacionalización



*Email pc.international@ehu.eus Telefono zenbakia / Nº teléfono:+ 34 943 015127*

| I. ERANSKINA<br><br>ERASMUS+ PROGRAMAKO HERRIALDEEN ETA HERRIALDE KIDEEN ARTEAN DOKTOREGO MUGIKORTASUNERAKO, **ERASMUS+ MUGIKORTASUNEN ESLEIPENA**<br><br>**ESLEIPENA**: *2022ko TOKYO INSTITUTE OF TECHNOLOGY-REN SERP PROGRAMAN PARTE HARTZEKO ERASMUS+ MUGIKORTASUN BAT EMATEN ZAION UPV/EHUko DOKTOREGOKO IKASLEA* | **ANEXO I**<br><br>**ADJUDICACIÓN DE MOVILIDADES ERASMUS+** PARA LA MOVILIDAD EN DOCTORADO ENTRE PAÍSES DEL PROGRAMA ERASMUS+ Y PAÍSES ASOCIADOS<br><br>**ADJUDICACIÓN:** *ALUMNO/A DE DOCTORADO DE LA UPV/EHU AL QUE SE LE CONCEDE UNA MOVILIDAD ERASMUS+ A TOKYO INSTITUTE OF TECHNOLOGY PARA EL PROGRAMA SERP DEL 2022* |
|---|---|

## 1. JAPONIA

## 1. JAPÓN

Esleitzeko dauden Erasmus+ beken kopurua: 1

Número total de becas Erasmus+ a adjudicar: 1

| Aukeraturiko pertsonaren NA / DNI de la persona seleccionada | Erasmus+ egonaldiaren iraupena / Duración de la estancia Erasmus+ | Datak (gutxi gorabehera) / Fechas aproximadas | Erasmus+ diru-laguntza / Ayuda Erasmus+ |
|---|---|---|---|
| 78952066N | 5 hilabete / 5 meses | 2022ko ekainean, uztailean, abuztuan edo irailean hastea ( SERP programaren datak kontuan hartu behar dira)/<br><br>Comenzar en junio, julio, agosto o septiembre de 2022 (hay que tener en cuenta las fechas del programa SERP) | 700 euro/hileko eta 1.500 euro bidaiarako<br><br>700 euros/mes y 1500 euros para el viaje |



*Email pc.international@ehu.eus Telefono zenbakia / Nº teléfono:+ 34 943 015127*